

EH Bildu talde politikoa

Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - 20003 Donostia
Tel. 943481027 eh_bildu@donostia.eus-- www.donostia.ehbildu.eus -

KONTROL MOZIOA

Auzoetako aurtengo festetarako eta ekimenetarako asmoei buruzkoa

EH Bildu udal taldeko zinegotzi Zigor Etxeburua Urbizuk mozio hau aurkezten du Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri hartuta, Udalbatzan azter dadin. Mozioaren oinarria 2021eko apirilaren 19an Pertsonentzako Zerbitzuen batzordean aztertutako interpelazioan dago.

JUSTIFIKAZIOA

Iaz, Covid-19ak eraginda, Donostiako auzoetako festa gehienak bertan behera utzi zituen Udal Gobernuak. Egoera horren aurrean, 2020ko ekainaren 25ean, Udalbatzak mozio bat onartu zuen eskatzeko Udal Gobernuari jarrera erraztailea erakusteko, eta udako jaien antolatzaile eta parte hartzaile nagusiak diren eragileekin adosteko auzoetako festak eta gainerako agerraldiak birpentsatzeko aukerak.

Otsailean, auzoetako aurtengo festetarako dituen asmoei buruz galdetu zion EH Bilduk Kulturako zinegotzi ordezkariari. Hain zuzen ere, aurrekontuetan badago jasota diru sail bat auzoetako festetarako, eta zinegotziak prentsari egindako adierazpenen arabera, Udal Gobernuak ere badu udan atari zabaleko ekitaldiak antolatzeko asmoa. Edonola, zinegotziak ez zuen auzoetako festei buruzko ziurtasunik eman; udaberrian argitzekotan geratu zen. Estatuko agintariak, ordea, dagoeneko aurreratu dute txertaketa erritmoa bizkortzeko asmoa dutela, eta uda amaierarako oso aurreratuta egotea espero dutela. Areago, maiatzaren 9an alarma egoera altxatzeko asmoa dutela adierazi dute.

Festa eragileek adierazi digutenaren arabera, Udaleko Festa sailak ez ditu erantzun eragileek egindako galderak, eta kezka dute ohikoak izango ez diren jaiak antolatzeko garaiz ibiliko diren, ezta aski gaitasun izango ote duten ere. Horregatik, EH Bilduk zinegotzi ordezkariari galdetu zion zer dela-eta Udal Gobernuak ez duen oraindik abiatu harreman bide bat, festetako eragileekin, aurtengo udaberriatik aurrera egin daitezkeen herri jaiak eta auzoetako festak garaiz eta era adostuan antolatzeko. Zinegotzi ordezkariak adierazi zuen erantzun izan zaiela jai batzordeen galderei. Edonola, aipatu zuen ez zekiela zer gertatuko zen udako jaiekin. Gainera, aipatu zuen hainbat udal sailekin martxoa hasieran egin behar zuten bilera bat bertan behera utzi zutela LABIk bilera noiz egingo zain zirelako, eta iragarri zuen biharamunean, apirilaren 20an, egitekoak zirela.

EH Bilduren ustez, beharrezkoa da Udalak aurtan izan daitezkeen aukeren inguruko aurreikuspenak garaiz egitea jaien antolatzaile eta parte hartzaile nagusiak diren eragileekin batera, eszenategi makurrenak, baita posibilistenak ere, kontuan hartuta. Gainera, behar-beharrezkoa iruditzen zaigu Udalak festa eragileen eskura jartzea dituen baliabideak, auzoetako festak osasun neurriak bermatzeko moduz antolatzeko.

Horregatik guztiarengatik, behean sinatzen duen zinegotziak honako KONTROL MOZIO hau egiten du:

